

ARGUMENTU-HARREMANA / EREMU-HARREMANA: IZENONDO ERREFERENTZIALEN EUSKAL ORDAINEN BILA¹

Igone ZABALA

Euskara Teknikoa. Zientzi Fakultatea. EHU

Izenondo erreferentzialak oso ugariak dira hizkuntza erromantzeetan eta bai ingelesaren barruan oro har eta batez ere hizkuntza horien erabilera berezitueta ere. Izenondo horien euskal ordainen bila abiatzen garenean, ordea, jakina da egoneza eta zalantzez beteta aritzen garela. Askotan jarri da agerian hainbat bide erabili behar direla inguruko hizkuntzen izenondo erreferentzialen euskal ordainak lortzeko (Ensunza, 1989; Loinaz, 1995): izenlagunak, izen elkartuak, euskal atzizki bat erabiliz eratorritako izenondo bat, beste hizkuntza batetik mailegaturiko izenondo erreferentziala... Edonola, idazle/itzultzailearen zuhertasunaren, intuizio onaren edota estetika-zentzuaren azpian uzten da neurri handian kasu bakoitzean erabili behar den baliabidearen aukeraketa. Terminologiaren esparruan ere, erdal izenondo erreferentzial bakarrerako hainbat aukera eskaintzen dira, hiztegiaren erabiltzaileak testuinguruaren arabera kudeatu beharko lituzkeenak. Bistan da honek arazoak ekartzen dituela, batetik, terminologiaren helburuak kontzeptu baterako termino bakarra egotea izan beharko bailuke eta bestetik, edozein terminok itxura bera izan beharko bailuke testuinguru guztietan.

Lan honen helburua hizkuntza erromantzeen eta ingelesaren izenondoen azpisail semantiko eta sintaktikoei erreparatuz, mota bakoitzak euskaraz onartzen dituen ordainen nolabaiteko sistematizazioa bilatzea da. Lehen atalean, izenondo kalifikatzaile eta erreferentzialen arteko bereizketaz arituko gara. Bigarrenean, izenondo erreferentzialen artean sintaxi-jokaera desberdina duten bi azpisail dagoela agerian jartzen saiatuko gara. Hirugarren atalean, euskal izenondo eratorri eta elkartuei begiratuko diegu erdal izenondoen ordaintzat noiz erabil daitezkeen ikusteko. Laugarrenan, euskal hitz-elkarketaz arituko gara, erdal izenondoen ordainak emateko noiz balio dezakeen eta haren mugak non dauden finkatzeko asmotan. Azken atalean berriz, oso ohikoak diren izenondo erreferentzialen metaketak aztertuko ditugu, euskararako hartzen ditugun ordainen erabilgarritasuna noraino mugatzen diguten ikustearren.

1. Izenondoen mota nagusiak

Izenondoen artean, bi mota nagusi bereizi ohi dira: alde batetik, izakien ezaugarriak adierazten dituzten 'izenondo kalifikatzaileak' eta bestetik, izakiei beraiei erreferentzia egiten dieten 'izenondo erreferentzialak'. Izenondo erreferentzialak izenetatik eratorritakoak izan ohi dira; izenondo kalifikatzaileen artean berriz, badira asko eratorriak ez direnak, baina izenetatik eratorritakoak ere badira. Gaztelaniaren adibide bat emango dugu:

¹ Lan honek Euskal Herriko Unibertsitateko diru-laguntza jaso du UPV 033.310-HA 022/96 ikerkuntza-proiektuaren barruan

- (1) a. comportamiento *cívico*
b. derecho *civil*

(1a) adibideko *cívico* izenondoa, kalifikatzailea da *comportamiento* izenaren ezaugarri bat adierazten baitu. (1b) adibidearen *civil* izenondoa berriz, erreferentziala da. Bi izenondo horien izaera sintaktiko desberdina agerian jartzen da graduatzaile bat gaineratzen diegunean (2), eraikuntza predikatibo batean txertatzen ditugunean (3) edo ezaugarri bat adierazten duen izena daraman perifrasi bat eraikitzen dugunean (4).

- (2) a. un comportamiento muy *cívico*
b. * un derecho muy *civil*
(3) a. este comportamiento no es *cívico*
b. *este derecho no es *civil*
(4) a. el *civismo* de su comportamiento
b. *la *civilidad* de este derecho

Banaketa honek erraza badirudi ere, arazoa korapilatu egiten da morfologia bakarraren azpian bi sail desberdin hauei dagozkien izenondoak egon baitaitezke. Adibide bat ematearren, *constitucional* izenondoa kalifikatzailea da (5) adibidean, (6)ko froga sintaktikoek agerian jartzen duten bezala:

- (5) ley *constitucional*
(6) a. esta ley es totalmente *constitucional*
b. la *constitucionalidad* de la ley es innegable

Hurrengo adibideak ordea, bi irakurketa izan ditzake, hain zuzen ere, *constitucional* izenondoak erabilera kalifikatzailea ezezik erabilera erreferentziala ere izan baitezake:

- (7) reforma *constitucional*
(i) Konstituzioa bortxatzen ez duen erreforma (KALIFIKATZAILEA)
(ii) Konstituzioaren erreforma (ERREFERENTZIALA)

Reforma constitucional sintagma bi kontzeptu desberdin adierazteko erabil dezakegu: batetik, Konstituzioa bortxatzen ez duen erreforma, hots, (5) adibidean duen irakurketa bera, eta bestetik, Konstituzioaren erreforma. Lehen irakurketa izenondo kalifikatzaileari dagokio baina bigarrenak izenondo erreferentziala jartzen digu agerian. Izenondo berari *anti-* aurrikia gaineratzen diogunean, anbiguitatea desagertu eta izenondo kalifikatzailea baizik ez zaigu geratzen.

- (8) reforma *anticonstitucional*

Ingelesaren kasuan ere, morfologia beraren azpian hainbat azpikategoria ezkututzen dituzten kasu ugari ditugu izenetik eratorritako izenondoaren artean; adibide bat ematearren, Levi-k (1978) eskaintzen duen bat aipatuko dugu:

- (9) a. *musical* voice (KALIFIKATZAILEA)
b. *musical* criticism (ERREFERENTZIALA)
c. *musical* clock (ERREFERENTZIALA)

Hortaz, izenetik eratorritako izenondoaren kasuan askotan gertatzen da morfologia beraren azpian izenondo kalifikatzaileak eta erreferentzialak ezkutatzea. Askotan, beti ez bada ere, modifikatzen duen izenak emango digu izenondoaren izaeraren gakoa. Edonola, askotan gertatzen dena da hizkuntza batean morfologia bakarreko izenondo eratorri batez adierazten dena beste hizkuntza batean hainbat baliabideren bidez adieraztea. Esate baterako ingeleseko *marginal* izenondoak erabilera erreferentziala eta kalifikatzailea izan ditzake, hurrenez hurren (10a) eta (10b) adibideetan adierazi direnak.

- (10) a. *marginal* note (erreferentziala)

b. *marginal case* (kalifikatzailea)

Gaztelaniaren kasuan ordea, *marginal* izenondoak irakurketa predikatiboa baino ez du eta irakurketa erreferentziala lortzeko, *a* preposiziodun sintagma erabili behar da:

- (11) a. nota *al margen*
b. caso *marginal*

Euskararen kasuan ere, baliabide desberdinak erabiltzen dira ingelesaren *marginal* izenondoaren adiera predikatibo eta ez- predikatiborako. Hona hemen *Elhuyar (gaztelania/euskara)* hiztegian aurki daitezkeenak.

- (12) a. albo-ohar /*marjinako* ohar
b. *bazterreko* kasu

2. Izenondo erreferentzialen motak

Esan dugun bezala, izenondo erreferentzialek ez dute ezaugarririk adierazten; izenetik eratorritako izenondoak izan ohi dira eta modifikatzen duten izenaren eta izenondoa eratorri deneko izenaren artean harremanen bat dagoela adierazten dute. Harreman hori ordea, hainbat motatakoa izan daiteke. Modifikatzen den izena aditz batetik eratorritakoa denean, izenondo erreferentzialak aditz horren argumentu bat (subjektua edo osagarri zuzena) adieraz dezake.

- (13) a. transporte *electrónico*
b. infección *vírica*

Electrónico izenondoak (13a) adibidean *transporte* izen deberbalaren 'gaia' adierazten du, hau da, garraiatzen dena. (13b) adibideko *vírica* izenondoak berriz, *infección* izenaren 'egilea', hots, infekzioa egin edo eragin duena adierazten du. Honelako izenondoek modifikatzen duten izenaren argumentuak direla, hau da, izenak adierazten duen ekintza edo gertaeraren partehartzaileak adierazten dituztela esan daiteke. Bosque-k (1993) 'thematic adjectives' deritze. Euskaraz IZENONDO TEMATIKOAK esango diegu. Izenondo horien argumentu-izaeraren froga gisa, ikusi posible dela *de* edo *por parte de* daraman modifikatzaile batez ordezkatea (14).

- (14) a. transporte *de electrones*
b. infección *por parte de virus*

Bestetik, izenondo tematiko hauek ez dira bateragarriak 'gai' edo 'egile' gisa jokatzeko duen preposiziodun modifikatzaile batez, argumentu bakoitza behin baino ezin baita asetu.

- (15) a. *transporte electrónico de moléculas
b. *infección vírica por parte de bacterias

Tematikotzat har daitezke era berean 'jabegoa' adierazten duten izenondoak, mota guztietako izenekin ager daitezkeenak:

- (16) radio *terrestre*
= radio *de la Tierra*

Beste batzuetan ordea, izenondo erreferentzialak ez dira modifikaturiko izenak zilegiztatzen dituen argumentuak; modifikaturiko izena sailkatzeko erabiltzen dugun eremu bat sartzen dute². Bosque-k (1993) 'classificatory adjectives' deritze; IZENONDO SAILKATZAILEAK esango diegu euskaraz. Hona hemen zenbait adibide:

² Ikus Bosque (1989, 1993)

- (17) a. microscopio *electrónico*
 b. material *quirúrgico*
 c. tabla *periódica*
 d. demostración *matemática*

Bosque eta Picallo-k (1996) izenondo sailkatzaileen eta modifikaturiko izenen artean ezar daitezkeen harreman semantikoen hainbat mota bildu dituzte, bibliografian zehar aurki daitezkeenak. Hona hemen eskaintzen dituzten adibideak:

- | | | | |
|---------|------------------------------|--------------------|-----------|
| (18) a. | acrobacias <i>aéreas</i> | LOKATIBOA | (BIDEA) |
| b. | calor <i>solar</i> | LOKATIBOA | (ITURRIA) |
| c. | viaje <i>estelar</i> | LOKATIBOA | (XEDEA) |
| d. | poblado <i>lacustre</i> | LOKATIBOA | (TOKIA) |
| e. | discriminación <i>racial</i> | KAUSA | |
| f. | literatura <i>infantil</i> | XEDEA/BENEFAKTIBOA | |
| g. | crema <i>dental</i> | BENEFAKTIBOA | |
| h. | curación <i>manual</i> | INSTRUMENTAL | |
| i. | residuos <i>industriales</i> | ITURRIA | |
| j. | material <i>quirúrgico</i> | ERABILERA | |

Izenondo sailkatzaile hauek askotan agertzen dira argumentu-egiturarik ez duten izenekin, objektu-izenekin adibidez. Ikusi esate baterako (17 a, b, c) eta (18 a, b, c, d, f, g, i, j). Edonola, izenondo sailkatzaile bat izen deberbal batekin agertzen denean ere, posible da izen horren argumentuak sintaktikoki gauzatzea, izenondo sailkatzaileak ez baitu horrelakorik asetzen. Hona hemen Bosque eta Picallo-ren (1996) adibide bat:

- (19) la demostración *matemática* del teorema por parte de Juan

Izenondo erreferentzialen artean bereiziriko bi azpisail horiek, alegia, tematikoak eta sailkatzaileak, sintaktikoki era desberdinean jokatzeko duten azpikategoriak direla frogatzeko, bakoitzak kokagune jakin bat bete behar duela agerian uzten duten ordenazio-frogak eskaintzen dituzte aipaturiko hizkuntzalariek. Izenondo sailkatzaileek izenetik hurbilago egon behar dute izenondo tematikoek baino. Hona hemen aipaturiko autoreen adibide bat:

- (20) a. reformas *agrarias gubernamentales*
 b. *reformas *gubernamentales agrarias*

Izenondo kalifikatzaileei dagokienez, izenetik urrunen agertzen direnak dira (21).

- (21) una política *agraria española vergonzosa*

Izenondoak izenaren ezkerrean kokatzen dituen ingelesa bezalako hizkuntza batean aipaturiko hiru azpikategoriaren ordenazioa gaztelaniarenaren ispilu-irudia da, baina modifikaturiko izenarekiko distantziaren erudia mantendu egiten da hizkuntza horretan ere:

- (22) the *shameful Spanish agrarian politics*

Izenondo erreferentzialen artean hainbat azpisail egoteak areagotu egiten digu terminologiaren esparruan izenondo hauetarako euskal ordainak eskaintzeko orduan beti 'izena+izenondo' sekuentzia osoa eman beharra, kasu askotan gertatuko baitzaigu izenondo tematikoetarako euskal ordain bat eta izenondo sailkatzaileetarako beste bat eman behar izatea, eta areago, izenondo sailkatzaileen artean ere izenaren eta izenondoaren artean dagoen harremanaren arabera ordain bat edo beste bat eman behar izatea. Hona hemen adibide bat:

- (23) a. limpieza *dental* (IZND. TEMATIKOA '-GAIA')

- hortz* -garbiketa
 b. hilo *dental* (IZND. SAILKATZAILEA-'XEDEA')
hortzetako hari
 c. clínica *dental* (IZND. SAILKATZAILEA-'IHARDUERA')
hortz-klinika
 d. consonante *dental* (IZND. SAILKATZAILEA-'INSTRUMENTALA'/
 ITURRIA)
 kontsonante *horzkari*

Euskaltzaindiak (1992) hitz elkartuen erabilpen-esparruari buruz aritu denean azpimarratu egin du hitz elkartuak baliabide egokiak izaten direla askotan erdal 'izen+izenondo erreferentzial' moduko sekuentziak euskaraz emateko baina baliabide horrek bere mugak dituela jartzen du agerian. Izenondoaren artean bereiz daitezkeen mota semantikoetatik abiatuta, hitz elkartuen muga horiek zein diren eta bestelako baliabideak noiz erabili beharko lirartekeen agerian uztea da hurrengo sailetan egin nahi duguna.

3. Euskal izenondoak

Askotan esan ohi da euskaraz izenondo erreferentzialik ez dagoela eta horrelakorik erabiltzen dugunean inguruko hizkuntzen menpe aritzen garela. Egiazta dezagun baieztapen hori, benetan nolabaiteko ñabardura behar ez ote duen ikustearren. Hasteko, beha diezaiegun euskal izenondoei, erdal 'izen+izenondo' sekuentziak antzeko euskal sekuentziez noiz ordezkatzakegun ikusteko. Lan honetarako interesa dakizkigukeenak izenondo eratorriak eta elkartuak dira, izenondo bakunak inoiz ez baitira erreferentzialen sailekoak.

3.1. Izenondo eratorriak

Azkaratek (1991) ondoko atzizkiak biltzen ditu izenondo-sortzaileen artean: -TI, -TSU, -(T)AR, -BERA, -KOI, -KARI, -KIN, -TIAR/-LIAR, -KOR, -GARRI, -KIZUN, -DUN, -KO.

Atzizki hauetako gehienek ezaugarriak adierazten dituzten izenondoak sortzen dituzte zalantzarik gabe. Hortaz, ez dira baliagarriak izenondo erreferentzialen euskal ordainak emateko, bai ordea erdal zenbait izenondo kalifikatzaile euskaratzeko.

- (24) bakarTI, haizeTSU, sinisBERA, herriKOI, aurreraKOI, lagunKARI, jendeKIN, goizTIAR, higiKOR, hilGARRI, esanGARRI, eginKIZUN, birikaDUN, maiztasun altuKO

Atzizki hauetaz gain -(TZAI)LE atzizkia aipa dezakegu; izan ere, atzizki honek oro har izenak sortzen dituela onarturik badago ere, atzizki beraren bidez sorturiko eratorriek izen baten modifikatzaile modura agertzen dira sarritan (molekula *hartzaile*).

Edonola, bistan da hizkuntzaren erabilera berezituetan ere askotan agertuko zaizkigula euskal ordain bat eroso onartuko duten izenondo kalifikatzaile bakunak eta eratorriak. Hona hemen UZEIren *Biologia/2 (Botanika)*, *Biologia/3 (Ekologia)* eta *Biologia/4 (Zoologia)* hiztegietatik harturiko hainbat adibide.

- | | |
|--------------------------------|--------------------------|
| (25) especie <i>adventicia</i> | espezie <i>arrotz</i> |
| especie <i>acompañante</i> | espezie <i>lagun</i> |
| especie <i>dominante</i> | espezie <i>nagusi</i> |
| especie <i>indicadora</i> | espezie <i>adierazle</i> |
| especie <i>protegida</i> | espezie <i>babestu</i> |
| estado <i>estacionario</i> | egoera <i>geldikor</i> |
| planta <i>trepadora</i> | landare <i>igokari</i> |

animal <i>gregario</i>	animalia <i>taldekoi</i>
estación <i>lluviosa</i>	urtaro <i>euritsu</i>
zona <i>pantanos</i>	zona <i>zingiratsu</i>
estación <i>favorable</i>	urtaro <i>laboragarri</i>
insecto <i>perjudicial</i>	intsektu <i>kaltegarri</i>
huesped <i>definitivo</i>	<i>behin-betiko</i> ostalari
fitofago <i>subterráneo</i>	<i>lurpeko</i> fitofago
pieza <i>dentada</i>	<i>horztun</i> pieza
fertilizante <i>fosfatado</i>	ongarri <i>fosfatodun</i>

Batzuetan, konposizio eta eratorpenaren artean dauden izenondoak erabiltzen dira, hala nola, -ZALE, -KARA, -GAITZ, -EZIN:

(26) planta <i>heliófila</i>	landare <i>eguzkizale</i>
planta <i>ombrófila</i>	landare <i>eurizale</i>
planta <i>herbácea</i>	landare <i>belarkara</i>
capa <i>impermeable</i>	geruza <i>iragangaitz</i>
fuelle <i>inagotable</i>	iturri <i>agortezin</i>

3.2. -(T)AR atzizkia

Zenbait izenondo erreferentzialen ordainak emateko balio lezakeen bakarra -(T)AR atzizkia da. Atzizki hau geografi edo pertsona-izenei gaineratu ohi zaie baina izen arruntekin ere ager daiteke. Bestetik, izenondo hauek izenaren eskuin zein ezker aldean koka daitezke³.

Atzizki honek, kasu askotan izenondo erreferentzial sailkatzaileak sortzen dituelarik, harreman lokatiboa ezarri ohi du izenondoak modifikatzen duen izenarekiko. Izenondoak izena kokatzen digu leku edo denborari buruzko zehaztapenak emanez.

- (27) a. aztarna *afrikarrak* /*afrikar* aztarnak
 b. fosil *kretazearrak* / *kretazear* fosilak
 c. espezie *lehortarrak* / *lehortar* espezieak
 d. harrapari *gautarrak* /*gautar* harrapariak

Batzuetan, kokapen-harreman hori erraz antzeman daiteke, (27a, b) adibideetan bezala, baina beste batzuetan, zeharkakoa da (27c, d). Izan ere, lehen adibideetan *Afrikako espezieak* eta *Kretazeoko fosilak* izen-sintagmen bidez ere adieraz genitzake ideia berberak. Azken bi adibideetan ordea, perifrasi luzeagoak beharko genituzke ideia modu garbian adierazteko: 'lehorrean bizi diren espezieak' eta 'gauean aritzen diren harrapariak' esate baterako.

Badira izenondo erreferentzial sailkatzailezat har daitezkeen baina harreman lokatiboa adierazten ez duten izenondoak ere.

- (28) a. teoria *darwindarrak* / *darwindar* teoriak
 b. logaritmo *nepertarra* / *nepertar* logaritmoa
 c. periodikotasun *urtarotarra* / *urtarotar* periodikotasuna
 d. erritmo *ilargitarra* / *ilargitar* erritmoa
 e. abiadura *angeluarra* / *angeluar* abiadura
 f. sistema *bitarra* / *bitar* sistema

³ Euskaltzaindiak (1985) adjektiboen kategoriaren barruan izenondoak eta izenlagunak bereizi ditu modifikatzen duten izenarekiko kokagunearen arabera. -TAR atzizkidun adjektiboek bi kokaguneak onartzen dituztenez, zalantzarik dira sailkapen horri dagokionez. Antzeko arazoa dago -DUN atzizkiaren eraturiko adjektiboen kasuan. Lan hau ez luzatzearen, ez gara sartuko hauen kategoria eztabaidatzen. Adjektiboen mugei dagokionez ikus Odriozola, J.C. eta Cantero, A. (1993) eta Zabala eta Odriozola (1994).

Teoria darwindarrak, adibidez, 'Darwin-en ideiei jarraituz sortu diren teoriak' dira. *Logaritmo nepertarra* 'oinarria e zenbakia duen logaritmoa' da eta izenondo erreferentziala kalkulu logaritmikoan nabarmendu zen Neper matematikari eskoziarrari egiten dio erreferentzia. *Periodikotasun urtarotarra* eta *erritmo ilargitarra* hurrenez hurren 'urtaroen arabera eta ilargiaren faseen arabera antolaturiko periodikotasun edo erritmoa' dira. *Abiadura angeluarra* 'higidura zirkular batean zirkuluaren erradioak sortzen duen angeluaren denborarekiko deribatua' da. Azkenik *sistema bitarra*, 0 eta 1 zifrak bakarrik dituen eta informatikan erabili ohi den zenbaki-sistema da. Izenondo hauek modifikatzen duten izenarekiko harremana ez da inola ere gardena eta ulertu ahal izateko ezinbestean definitu beharreko terminoak sortzen dira.

Gaztelaniaz behintzat geografi izenen gainean eraikitako izenondo erreferentziales bestelako harremanak ere adieraz ditzaketela dirudi. Hortaz, Bosque eta Picallo-k (1996) (29) zenbakia esleitu diegun adibideak eman dituzte eta azpian ematen ditugun interpretazioak esleitu dizkiete. Hortaz, *politika* izenetik urrunen dagoen izenondoa (*africana* 29a adibidean eta *europa* 29b adibidean) izenondo tematikoa litzateke eta politika egiten duena ('egilea') adieraziko luke. Izenetik hurbilen dagoen izenondoa berriz, politika hori ezartzen den eremuari legokioke eta beraz, izenondo sailkatzailea litzateke.

- (29) a. *politika europa africana*
'Afrikak Europari dagokionez egiten duen politika'
b. *política africana europa*
'Europak Afrikari dagokionez egiten duen politika'

Euskararen kasuan, *-tar* atzizkia daramaten izenenondoek 'egilea' adieraz dezakete, baina ez politikaren aplikazio-eremua.

- (30) a. i. *Europarekiko politika afrikarra*
ii. **politika afrikarra europarra*
b. i. *Afrikarekiko politika europarra*
ii. **politika europarra afrikarra*

Onargarria da ordea euskaraz, *-tar* daramaten bi izenondoz osoturiko Dvandva-elkarte bat eratzea, (31) adibidean bezala. Kasu honetan irakurketa da 'Europak eta Afrikak batera egiten duten politika' eta beraz, 'egilea' adierazten duen izenondo tematiko elkartua dugu.

- (31) *politika afrikar-europarra*

Arazoa sortzen zaigu *vasco* izenondoa daramaten toki-izenondo elkartuak eman behar ditugunean: aipaturiko izenondoaren ordain modura *euskal* erabili ohi dugu, baina kontutan hartu beharrekoa da hori zenbait eraldaketa pairatu dituen menpetasunezko izen elkartuen *euskara* mugatzailea baizik ez dela. Hortaz, kategoriaz izena den zerbaiten aurrean gaude eta (32a) adibidea ez da gramatikala izen bat izenondo batekin elkartzen ari garelako⁴.

- (32) *cuena vasco-cantábrica*
a. **euskal-kantauriar* artoa
b. *euskokantauriar* artoa

Azkenik, esan beharrekoa da badirela geografi izenekin batera erabiltzen diren zenbait izenondo euskaraz beharrezkoak ez direnak. Esate baterako, euskaraz egokiagoa, edo behintzat arinagoa izan daiteke (33) adibideko *europo* izenondoa emateko *Europa* daraman aposizioa *europar* izenondoa daraman sekuentzia baino.

⁴ Edonola, geografi izenatarako *eusko* izenak egokiago dirudi *euskal* izenak baino, bigarrena hizkuntzari lotuago baitago lurraldetasunari baino.

- (33) continente *europo*
 a. ? *europar* kontinentea
 b. *Europa* kontinentea

3.3. Izenondo elkartuak

Zenbait izenondoren euskal ordainak bahuvrñhi-elkarteen bidez eman ditzakegu.

- (34) a. organismo *pluricelular* organismo *zelulanitz*
 b. bosque *caducifolio* baso *hostoerorkor*

Honelako izenondoak kalifikatzailetzat hartu behar dira ordea. Bereziki, zenbatzaile bat daramaten (34a) bezalako kasuei dagokienez, Levi-k (1978) agerian utzi du izenondo erreferentzialesi zenbatzailetzat har daitezkeen aurrizkiak gaineratzen zaizkienean kalifikatzaile bihurtzen direla:

- (35) a. *chromatic analysis*
 *That analysis is chromatic.
 b. *monochromatic drawings*
 Those drawings are monochromatics.

Antzeko adibideak aurki ditzakegu gaztelaniaz: *celular* izenondoa erreferentziala da, baina *pluricelular* izenondoa kalifikatzailea.

- (36) a. membrana *celular*
 *Esta membrana es celular.
 *La celularidad de la membrana.
 b. organismo *pluricelular*
 Este organismo es pluricelular.
 La pluricelularidad les proporciona importantes ventajas.

Hortaz, *chromatic* eta *celular* bezalako izenondoak erreferentzialak badira ere, *monochromatic* eta *pluricelular* bezalako euskal ordainak eman behar ditugunean izenondo kalifikatzaileen aurrean gaudela izan behar dugu buruan. Izan ere, bereizketa horrek onargarri eta zenbait kasutan agian gomendagarri egin dezake azpikategoria desberdinetarako konponketa desberdinak proposatzea. Era berean, desberdin samarrak izan daitezke *foliar* eta *caducifolio* izenondoetarako aukeraturiko konponketak.

Lehenago esan dugun bezala, Dvandva moduko izenondo elkartuak ere erabili beharko ditugu askotan (31).

3.4. Mailegaturiko izenondoak

Askotan izenondoak beste hizkuntzetatik mailegatzeko beharra dugu. Neurri handian hiztun bakoitzaren sentsibilitatearen arabera izan daiteke izenondoak mailegatzeko beharraren muga, baina lan honetan eztabaidatu dugun sailkapenak muga hori neurri batean behintzat objektibizatzen lagun gaitzakeela uste dut.

a) Hasteko, hizkuntzaren batean izenondo erreferentzial baten edo batzuen morfologia bera duten baina kalifikatzailetzat hartu behar diren izenondoak ditugu. Hauek, askotan mailegatu beharko ditugu, euskaraz pareko esangura duen izenondorik ez badugu behintzat. Esate baterako, Loinaz-en (1995) adibide bat hartuz, (37b) adibidean *natural* izenondoa ezinbestean mailegatu behar dugu, izenondo kalifikatzaile baten aurrean gaudelarik haren esangura nekez eman baitaiteke *Natur* izenaren bidez. (37a) adibidean ordea, erabilgarria da *Natur* izena, *natural* izenondo erreferentzialaren aurrean baikaude.

- (37) a. Ciencias *Naturales* (ERREFERENTZIALA)
Natur Zientziak

- b. sidra *natural* (KALIFIKATZAILEA)
sagardo *natural* / **natur*-sagardo

Ildo berean, *gramatical* izenondoa *gramatika* izenaren bidez eman dezakegu (38a) adibidearen kasuan, izenondo erreferentzial baten aurrean gaudelako. Izenondo kalifikatzaile bati dagokion (38b) adibidean ordea, izenondoa mailegatzeko beharrean gaude.

- (38) a. categoría *gramatical* (ERREFERENTZIALA)
gramatika-kategoria
b. perpaus *gramatical* (KALIFIKATZAILEA)
perpaus *gramatikal* /**gramatika*-perpaus

b) Beste muturrean, izenondo erreferentzial tematikoak ditugu. Honelakoen kasuan nekez mailegatuko ditugu euskaraz izenondo erreferentzialak. Kasuz kasu izen elkartuak edo izenlagunak erabiliko ditugu hauek emateko (39a, 40a) , beste hizkuntza batean morfologia bera duen izenondo sailkatzaile edo kalifikatzailea badago ere (39b, 40b).

- (39) a. transporte *electrónico* (ERREF. TEMATIKOA)
elektroi-garraio /**garraio elektronik*
b. microscopio *eléctrico* (ERREF. SAILKATZAILEA)
mikroskopio *elektroniko*
- (40) a. reforma *constitucional* (ERREF. TEMATIKOA)
Konstituzioaren erreforma /**erreforma konstituzional* (irakurketa tematikoan)
b. ley *constitucional* (ERREF. SAILKATZAILEA)
lege *konstituzional*

Izenondo erreferentzial tematikoa geografi izen batean oinarriturik badago, *-tar* atzizkidun izenondo bat edo izenlagun bat erabil dezakegu euskaraz.

- (41) política *europaea*
europar politika
Europaren politika

c) Zalantza gehien sortzen dizkigutenak izenondo sailkatzaileak dira, batzuetan euskararen baliabideak erabiliz eman baditzakegu ere beste batzuetan mailegatu egin beharko baititugu.

c1) Hasteko, batzuetan izenondoa eratoritzeko erabili den izenaren eta modifikaturiko izenaren arteko harremana horren urruna da, ezen izenondoa bera erabiltzea dela aukera bakarra harreman hori emateko. Hortaz, 'izen+izenondo' sekuentzia ez da inola ere gardena eta definizioa behar dugu termino horren bidez adierazten den kontzeptua ulertu ahal izateko.

- (42) a. estructura *nuclear* (ERREF. TEMATIKOA)
nukleo-egitura
b. central *nuclear* (ERREF. SAILKATZAILEA)
zentral *nuklear* /**nukleo*-zentral

(42b) adibideko *zentral nuklear* esate baterako uranioa bezalako elementu erradioaktiboen nukleoen fisioaren bidez lorturiko energia energia elektriko bihurtzen duen zentrala da eta zentral eta nukleoaren artean dagoen harremana urrunegia da *nukleo* izenaren bidez emateko moduan.

c2) Batzuetan itxura bera duten izenondoek ez diote erreferentzia egiten izen berari. Esate baterako, *electrónico* izenondoak elektroiei egiten die erreferentzia (43a) adibidean;

izan ere, elektroien garraioaz ari gara. (43b) adibideko izenondoak berriz, harremana du elektronika delako zientzian oinarrituriko teknologiarekin eta ez zehazki elektroiekin beraiekin; hau da, elektronika erabiliz dabilen neurgailuari dagokio.

- (43) a. transporte *electrónico* (ERREF. TEMATIKOA)
elektroi-garraio /*garraio *elektroniko*
 b. medidor *electrónico* (ERREF. SAILKATZAILEA)
 neurgailu *elektroniko* /**elektroi*-neurgailu

Azkenik, (43c) adibidearen aurrean zalantzak izan ditzakegu, mikroskopio elektronikoa argia gabe elektroi-sortak erabiltzen dituen mikroskopioa baita baina elektronikan erabilitako teknologiaz asmatu den tresna ere bada. *Elektroniko* izenondoa aukeratu da euskaraz horren ordaina emateko, baina *elektroi-* erabiltzea ere ez litzateke pentsaezina.

- (43) c. microscopio *electrónico* (ERREF. SAILKATZAILEA)
 mikroskopio *elektroniko* /**elektroi*-mikroskopio

c3) Oro har, zientzia eta teknologietatik eratorritako izenondo erreferentzialak nekez eman daitezke izenondoa bera mailegatu gabe.

- (44) a. factores *ambientales*
ingurune-faktoreak
 b. factores *ecológicos*
 faktore *ekologikoak* /**ekologia*-faktoreak

Aurreko adibide bietan, era desberdinean jokatu dute UZEIren *Biología/3 (Ekología)* hiztegiaren egileek *ambiental* eta *ecológico* izenondoak emateko orduan, modifikatzen duten izena (*factores*) berbera izanik ere. (44a) adibidean ingurunean dauden eta bizidunengan eragina duten faktoreak adierazi nahi ditugu eta izen elkartua erabil dezakegu hori adierazteko. (44b) adibidearen kasuan ordea, *Ekología* delako zientzian egiten diren azterketetan kontutan hartu ohi diren faktoreak eman nahi dira aditzera eta harreman hori *ekologiko* izenondoaren bidez adierazten da hobekien⁵. Are garbiagoa da (45) adibidea seguruenik inolako euskaldunek ez bailuke onartuko *kimika-* izena *kimiko* izenondoaren ordez.

- (45) composición *química*
 konposizio *kimiko* /**kimika*-konposizio

Salbuespena lirateke *zientzia* izen bera modifikatzen duten eta zientzia baten izenean oinarriturik dauden izenondoak, euskaraz aposizioen bidez ematen baititugu (46a). Era berean, *ikuspegi* bezalako izenak modifikatzen dituztenak, izenlagun modura gauzatu ohi dira (46b).

- (46) a. Ciencias *Físicas*
Fisika Zientziak
 b. desde un punto de vista *biológico*
Biologiaren ikuspegitik

c4) Batzuetan izenondo erreferentzialak kultur erro baten gainean eraikita daude eta esangura berezia bereganatu dute. Orduan zail samarra gertatzen da gaur egun pareko izen bat bilatzea izenondotik ihes egiteko.

- (47) factores *bióticos*
 faktore *biotikoak* /**bititza*-faktoreak

⁵ Edonola, *ingurune-faktore* eta *faktore ekologiko* terminoak sinonimoak direla esan behar da.

(48) adibideko *vital* izenondoa berriz, hobeto ematen da izen baten bidez, bizitzari zuzenean erreferentzia egiten baitio:

- (48) ciclo *vital*
bizitza-ziklo

Zenbaitetan, kultur erro batean oinarrituriko izenondorako ordaina aurki dezakegu baina terminoa espezializazio-maila handikoa izanik, egokiagoa izan daiteke izenondoa. Kasu honetan, gerta daiteke espezializazio-mailaren arabera terminoari itxura bat edo beste bat nahiago izatea. Hala nola, (49) terminorako anatomiaren esparru espezialduan ari garenean *distal* izenondoa aukeratuko dugu seguruenik baina dibulgazio-maila batean edo lehen irakaskuntza-urteetan Natur Zientziak irakasgaien anatomiaz zerbait irakatsi behar badugu, *urruneko* izenondoa ere erabil liteke.

- (49) articulación *distal*
a. giltzadura *distala*
b. *urruneko* giltzadura

Izenondo horiek elementu jakin batzuk izendatzeko espezialdu direnean, erabat ezinezkoa da mailegutza saihestea.

- (50) a. hueso *parietal* hezur *parietala*
b. hueso *occipital* hezur *okzipitala*
c. hueso *temporal* hezur *temporal*

c5) Atal honi bukaera emateko, makina, organo edo aparatuak bezalako funtzioak edo iharduerak adierazten dituzten izenondo erreferentzialak ez mailegatzeko joera nabaria ikusten da.

- (51) a. órgano *táctil* *ukimen*-organo
b. aparato *reproductor* *ugal*-aparatu
c. máquina *calculadora* *kalkulatzeko* makina

4. Euskal hitz-elkarketa

Ezaguna da hitz-elkarketa oso baliabide emankorra dela euskaraz.

4.1. Izenondo erreferentzial tematikoen ordainak

a) Izenondo erreferentzial tematikoen ordainak ongi asko eman daitezke euskaraz izen elkartuen bidez, bai subjektuari, bai osagarri zuzenari dagozkionak. Izan ere, hirugarren atalean esan dugunez, nekez mailegatzeko dira mota honetako izenondoak:

- (52) a. transporte *electrónico*
elektroi-garraio
b. infección *viral*
birus-infekzio

Osagarri zuzenari dagozkion izenondo tematiko askoren ordainak, hain zuzen egile-eta ekintza-elkarte sintetiko bidez emango ditugu⁶:

⁶ Batzuetan egile-elkarte sintetikoak berak bete dezake izenondo baten funtzioa; izenondo hauek kalifikatzaile hartu behar ditugu ordea:

insecto *xilófago* intsektu *egurjale*
organismo *geófago* organismo *lurjale*

- (53) a. transportador *electrónico*
elektroi-garraiatzaile
 b. rotura *celular*
zelula-apurketa

b) Era berean jabegoa adierazten duten izenondo tematikoak izen elkartuen bidez eman daitezke:

- (54) membrana *celular*
zelula-mintza

c) Izen elkartuen ohiko ezaugarria izaten da mugatzailearen balio generikoa; horrenbestez, muga nabaria dugu izen propioetan oinarrituriko izenondo tematikoen ordainak emateko. Literaturan mota honetako adibide bakan batzuk aurkitu badira ere, ez dirudi bide egokia denik (ikus Azkarate, 1990: 211).

- (55) a. decisión *presidencial*
Lehendakariaren erabaki/ ???Lehendakari-erabaki
 b. radio *terrestre*
Lurraren erradio / ??? Lur-erradio

4.2. Izenondo erreferentzial sailkatzaileen ordainak

a) Izenondo sailkatzaileen eta modifikatzen duten izenaren artean mota askotako harremanak ezar daitezkeela esan dugu bigarren atalean. Menpetasunezko hitz elkartuen osagaien artean euskaraz ezar daitezkeen harreman lojikoei begiratzen badiegu, hauek ere antzeko harremanak adieraz ditzaketela ikusiko dugu. Hona hemen Azkaratek (1990: 134) bildu dituenak: 'egilea', 'jabetza', 'helburua', 'gaia', 'garaia', 'edukia', 'iturburua', 'erkaketa', '-en gainean'/'-i buruz', 'zatia', 'lekua', 'baliabidea', 'modua', 'ondorioa'/'emaitza', 'metafora', 'atala', 'ariketa'/'jarduna'. Harreman hauetako batzuk izenondo tematikoei dagozkienak dira ('egilea', 'jabetza', 'gaia'), besteek ordea izenondo sailkatzaileek ezartzen dituztenak gogorarazten dizkigute.

- (56) a. hilo *dental* (HELBURUA)
hortz-hari /hortzetako hari
 b. literatura *infantil* (HELBURUA)
haur-literatura /haurrentzako literatura
 c. mariposa *nocturna* (GARAIA)
gau-tximeleta / gautar tximeleta
 d. haz *electrónico* (EDUKIA)
elektroi-sorta
 e. energía *solar* (ITURBURUA)
eguzki-energia/ eguzkitiko energia
 f. comportamiento *infantil* (ERKAKETA)
haur-jokaera
 g. crítica *literaria* (-EN GAINEAN, -I BURUZ)
literatur kritika
 h. hueso *humano* (ZATIA)
giza hezur
 i. molusco *marino* (LEKUA)
itsas molusku /itsastar molusku
 j. panel *solar* (BALIABIDEA)
eguzki-panela
 k. corte *transversal* (MODUA)
zehar-ebakidura /zeharkako ebakidura
 l. caña *azucarera* (ONDORIOA/EMAITZA)
azukre-kainabera
 m. órgano *auditivo* (IHARDUERA/JARDUNA)

entzumen-organo

Goian aipaturiko harreman lojikoaren artean batzuek ez dute balio izenondo erreferentzialak ordezkatzeko. Hala nola, 'metafora' harremana aurkitzen dugu *azeribuztan* izen elkartuan, *Equisetum s.p.* espeziearen izen arrunta dena. 'Atala' harremana, 'zati' harremanaren aurkakoa adierazteko erabiltzen du Azkaratek: lehen mugatzaileak mugakizunaren zati bat adierazten du. Harreman honen adibide bat *sable-arraina* dugu gaztelaniaren *pez sable* o *pez cinto* esateko erabiltzen dena.

Zenbait harreman adierazteko, elkarketaren baliabideaz gain izenlagunak ere baditugu, eta agian, bi izenen arteko harremana gardenagoa egiten dutelako, izenlagunak aukeratu ohi dira horietarako. Ikusi, esate baterako, 'helburua', 'iturburua' eta 'modua' harremanak adierazten dituzten adibideak.

Bestetik, 'leku' eta 'garaia' harremanak adierazteko, *-tar* atzizkidun izenondo erreferentzialak ere erabil daitezke, 3.2. azpiatalean eta (56 c, h) adibideetan ikus daitekeenez.

b) Batzuetan zaila izaten da erdal izenondo erreferentzial bati egokitzeko euskal izen egokia aurkitzea baina edonola, izenondoa bereziki desegokia izan daiteke euskararako. Orduan, terminoa behar duten espezialistak ados jar daitezke eta kontzeptuari horren ondo moldatzen ez zaion izen bat aukeratu. Hor dugu gaztelaniaren *rural* izenondoaren kasua. Edozein euskaldunek esango luke '*errural*' ez dela inola ere onargarria euskaraz baina *Diccionario de la lengua española* delakoan ageri den definizioari begiratzen badiogu haxe aurkituko dugu: 'Perteneiente o relativo al campo y a las labores de él'. Hortaz, garbi dago *rural* izenondoak *campo* izenari egiten diola erreferentzia, baina izen horretarako ordainik ez dugu euskaraz. Konponketa *campo* delako kontzeptuari erreferentzia egiten dioten izenondo erreferentzialetarako mugatzaile modura *landa-* izena duten hitz elkartuak erabiltzea da. Edonola, *landa-* mugatzaileak oso esangura desberdina du (57a) eta (57b) adibideetan⁷.

- (57) a. medio *rural*
landa-ingurune
 b. trabajo *de campo*
landa-lan

4.3. Izenondo kategoriako hitz elkartuak

Izenondo kategoriako hitz elkartuak ere badira euskaraz. Horien artean 'Dvandva-elkarteak', 'Bahuvrīhi-elkarteak' eta izenondo modura joka dezaketen zenbait 'egile-elkarte sintetiko'.

a) Dvandva-elkarteei dagokienez, bi izenondoren elkarketaz lortzen dira. Elkartzen diren izenondoek azpisail berekoak izan behar dute; alegia, ezin ditugu elkartu izenondo erreferentzialak kalifikatzaileekin ez eta sailkatzaileak tematikoekin.

a1) Euskal zein erdal izenondo erreferentzialak elkar ditzakegu eta lortuko ditugun izenondoak beti izango dira erreferentzialen azpisailekoak.

- (58) a. *europar-amerikar* politika
 b. faktore *fisiko-kimikoak*

⁷ Bestetik, *rural* izenondoa ezin euskara daiteke beti era berean. Hona hemen *Elhuyar (gaztelania-euskara)* hiztegitik ateratako beste adibide batzuk:

- (i) ambiente *rural* *baserri*-giro
 (ii) producción *rural* *nekazaritza*-produkzio
 (iii) deporte *rural* *herri*-kirol

a2) Izenondo kalifikatzaileak elkartzen ditugunean gerta daitekeena da esparru berezitetan egiten dugun erabilera benetan sailkatzaileen parekoa izatea. Esate baterako, *alga arreak* esaten dugunean, alga horien ezaugarri bat ematen dugu aditzera baina ezaugarri hori algak sailkatzeko ere erabiltzen dugu. Era berean, (59) adibideko *urdin-berde* izenondo elkartua alga zianofizeoen taldea beste modu batera adierazteko erabiltzen dugu.

(59) *alga urdin-berdeak*

b) Bahuvr̄hi-elkarteak ere, aipatuak ditugu lehenago, haien berezitasuna exozentrikoak izatea da. Hau da, hitz elkartuak daraman erreferentzia ez da mugakizunari dagokiona modifikatzen duten izenarena baizik. (60a) adibidean, esate baterako, *hostoiraunkor* esaten dugunean ez gara hosto-mota batez baso-mota batez baizik. 3.3. azpisailean esan dugunez, izenondo hauek kalifikatzaileen jokaera sintaktikoa dute. Egia da, ordea, semantikoki izenondo sailkatzaileen funtzio bera betetzen dutela, alegia, (60)ko adibideetan, basoak eta izakiak sailkatzea da haien funtzioa.

(60) a. baso *hostoiraunkor*
b. izaki *zelulabakar*

c) Azkenik, egile-elkarte sintetikoak ditugu. Hauek *-fago* kultur atzizkia ordezkatzeko baliagarriak gerta dakizkiguke.

(61) a. intsektu *egurjale* (insecto *xilófago*)
b. organismo *lurjale* (organismo *geófago*)

5. Erdal izenondo metatuen ordainak

Oso ohikoa da hizkuntza erromantzeetan eta ingelesaren barruan ere, izen bera modifikatzen duten hainbat izenondo metatzea. Fenomeno hau da euskaraz arazo gehien sortzen diguna, gerta baitaiteke metaturiko izenondo bakoitzaren ordaina emateko euskaraz baliabide desberdina erabili izana.

a) Mota desberdinetako izenondoak metatzen direnean, bakoitzak bere gunea bete beharko du sintaxian eta hitz-hurrenkera ondo zaindu beharko da. Euskal sintaxiak hitz-hurrenkera batzuk onartzen ditu eta beste batzuk baztertu egiten ditu⁸.

(62) una política *agraria* (S)*española* (T)*vergonzosa* (K)⁹
a. nekazaritzarekiko *espainiar* politika *lotsagarria*
b. nekazaritzarekiko politika *espainiar* *lotsagarria*
c. *nekazaritzarekiko politika *lotsagarri* *espainiarra*

⁸ Gaztelaniaz ere, baztergarria dira (i) eta (ii)ko hitz-hurrenkerak, ordenak ezinbestean izan behar baitu Izena-izenondo sailkatzailea-izenondo tematikoa-izenondo kalifikatzailea.

(i) *una política española agraria vergonzosa

(ii) *una política agraria vergonzosa española

⁹ (62) adibidea Bosque eta Picallo-rengandik (1996) hartu dugu.

Hona hemen laburduren esangura:

S: izenondo erreferentzial sailkatzailea

T: izenondo erreferentzial tematikoa

T-obj.: objektuari dagokion izenondo tematikoa

T-suj.: subjektuari dagokion izenondo tematikoa

K: izenondo kalifikatzailea

Erdal izenondoetako bakoitza modu batez ordezkatu dugu eta hitz-hurrenkerak euskaraz erabili ditugun kategoria sintaktikoen arabera izan behar du¹⁰. Hona hemen beste adibide bat.

- (63) una *creciente* (K) producción *artística* (T-obj.) *estudiantil* (T-suj.)
 a. *gora doan ikasleen arte-ekoizpena*
 b. *ikasleen goranzko arte-ekoizpena*
 c. **goranzko ikasleen arte-ekoizpena*

b) Izenondoak koordinatzen direnean berriz, azpikategoria berekoak izan beharko dute izenondo horiek ezinbestean.

b1) Ezinezkoa da izenondo erreferentzialak kalifikatzaileekin koordinatzea (64a) edo izenondo sailkatzaileak tematikoekin elkartzea ere (64b). Hauek guztiak sail semantiko eta sintaktiko desberdinak osatzen dituzte eta kokagune desberdinak eskatzen dituzte. Koordinazioak, juntatzen diren elementuak kokagune bera betetzen dutenetakoak izatea eskatzen du ordea.

- (64) a. **decisiones gubernamentales* (T) e *inaceptables* (K)
 b. **producción veraniega* (S) y *marisquera* (T)

b2) Areago, ezinezkoa da era berean subjektuari dagozkion eta objektuari dagozkion izenondo tematikoak elkartzea (65).

- (65) **producción marisquera* (T-obj.) y *gallega* (T-suj.)

b3) Izenondo sailkatzaileen artean ere, askotan gertatuko zaigu harreman semantiko desberdinak adierazten dituztenak ezin elkartzea. Esate baterako, (66a) adibidean hurrenez hurren 'lekua' eta 'garaia' adierazten duten izenondo sailkatzaileak ezin dira juntatu. Gauza bera gertatzen zaigu hurrenez hurren 'baliabidea' eta 'lekua' adierazten duten (66b) adibideko izenondoen kasuan.

- (66) a. **acrobacias aéreas y nocturnas*
 b. **central nuclear y costera*

Hortaz, azpisail desberdinetako izenondoetarako euskaraz konponketa desberdinak erabiltzeak ez du ondorioz izenondo koordinatuen ordainak eman beharko ditugunean.

b4) Arazoak sortuko zaizkigu ordea, azpisail bereko izenondoetarako konponketa desberdinak erabiltzen ditugunean, elementu horiek koordinatu beharko ditugunean sintaxi-kategoria desberdinak koordinatzeko ezintasunaren aurrean egongo baikara. Demagun, *rural* izenondoaren ordain modura *landa-* izena aukeratzen badugu ere, *urbano* izenondoa euskaraz hobeto txertatzen dela eta horretarako izenondoa mailegatzea erabakitzen dugula. Izenondo horiek askotan agertuko zaizkigu juntaturik eta orduan, ezinezkoa den koordinazio baten aurrean aurkituko gara. Ondorioa izango da *medio urbano* terminoa batzuetan *ingurune urbano* eta beste batzuetan *hiri-ingurune* egitea.

- (67) a. *medio rural*
landa-ingurune
 b. *medio urbano*
ingurune urbano
 c. *medio rural y urbano*
**landa- ingurune eta urbano*
landa- eta hiri-ingurune

¹⁰ Izenlagunen ordenazioari dagokionez, ikus Zabala (1996).

Hortaz, komenigarria da izen bera modifikatzen duten izenondo erreferentzialak batera erabakitzea eta guztietarako konponketa bera erabakitzea.

b5) Izenondo sailkatzaileak sailkapenetan egon daitezkeen sailen eta azpisailen arabera mailaka daitezke. Maila desberdinetako sailei dagozkien izenondoak ez dira inoiz koordinatuko, izen bera modifika badezakete ere.

- (68) a. *factores *ambientales* y *abióticos*
b. factores *bióticos* y *abióticos*

Maila desberdinetako izenondo sailkatzaileek, izen bera modifikatzen dutenean, hurrenkera jakin bat izan behar dute: maila altuagokoak hurbilago egon behar du izenetik. Honek agerian jartzen du syntaxian izenondo horiek kokagune desberdinak dituztela.

- (69) a. factores *ambientales bióticos*
b. *factores *bióticos ambientales*

(70)

- | |
|--|
| 1. factores ambientales
1.1. factores bióticos
1.2. factores abióticos |
|--|

Esate baterako *factores ambientales* deritzon saila *factores bióticos* eta *factores abióticos* direlako sailen bidez osoturik dago, (70) eskeman adierazi den bezala. Halako egoera batean badakigu inoiz ere ez dugula elkartuko 1 mailako terminoa 1.1. edo 1.2. mailetakoa terminoekin. 1.1. eta 1.2. mailetakoa terminoak berriz, sarri askotan elkartu beharko ditugu. Hortaz, *biótico* eta *abiótico* izenondoetarako konponketa bera proposatu beharko dugu, baina *ambiental* izenondorako konponketak ez du aurrekoenaren berdina izan behar. Ikusi (71) eskeman laburtu dugun euskararako aukera bat.

(71)

- | |
|--|
| 1. ingurune-faktoreak
1.1. faktore biotikoak
1.2. faktore abiotikoak |
|--|

b6) Zenbaitetan, dena den, euskaraz ezinbestean konponketa desberdinak behar dituzten izenondoak agertuko zaizkigu koordinaturik. Orduan, izena errepikatze beharrean egongo gara.

- (72) restos *humanos* o *volcánicos*?
giza aztarnak ala *aztarna bolkanikoak*?

c) Izenondo erreferentzialek askotan ematen dituzte izenondo elkartuak inguruko hizkuntzetan ere. Izenondo horiek euskaraz izenondoen bidez eman baditugu ez dago arazorik, baina izen-elkarketara jo badugu, ezinezkoa izango zaigu ordain bat ematea bi mugatzaile koordinatu duen menpekotasunezko izen elkarturik ez baitago euskaraz.

- (72) a. factores *físicos*
faktore *fisikoak*
b. factores *químicos*
faktore *kimikoak*
c. factores *físico-químicos*
faktore *fisiko-kimikoak*

- (73) a. política *europea*
europar politika
b. política *africana*
afrikar politika

- c. política *europo-afrikana*
europar-afrikar politika
- (74) a. medio *industrial*
industria- ingurune
- b. medio *urbano*
*hiri-*ingurune
- c. medio *urbano-industrial*
* *industria-hiri-*ingurune

Hortaz, mota honetako elkarketetan maiz parte hartzen duten izenondo erreferentzialetarako, hobe da izenondo kategoriako ordainak proposatzea.

BIBLIOGRAFIA

- AZKARATE, M. (1990) *Hitz elkartuak euskaraz*. Mundaiz.
- AZKARATE, M. (1991) *Irakaskuntza Proiektua* (argitaratu gabea)
- BOSQUE, I. (1989) *Las categorías gramaticales*. Ed. Síntesis. Madrid
- BOSQUE, I. (1993) 'Sobre las diferencias entre los adjetivos relacionales y los calificativos' *Revista Argentina de Lingüística* 9: 9-48
- BOSQUE, I. eta PICALLO, C. (1996) 'Postnominal adjectives in Spanish DPs' *Journal of Linguistics* 32: 349-385
- ELHUYAR (1996) *Euskara-Gaztelania/Gaztelania-Euskara hiztegia*
- ENSUNZA, M. (1989) 'Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak' *Euskera* 1989 (2): 577-596
- EUSKALTZAINDIA (1985) *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-1*. Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1992) *Hitz-elkarketa/4. Hitz elkartuen osaera eta idazkera*
- LEVI, J.N. (1978) *The Syntax and Semantics of Complex Nominals*. Academic Press. New York, San Francisco
- LOINAZ, M. (1995) 'Adjektibo erreferentzialen erabilera' *Berba* 16
- ODRIOZOLA, J.C. eta CANTERO, A. (1993) 'Euskal izenondoaren kokapenari buruzko zenbait ohar' *Euskera* 37(2): 1035-1049
- RAE (1970) *Diccionario de la Lengua Española* 19.edizioa (1983)
- UZEI (1984) *Biologia/1 (Izendegia)*. 2.edizioa 1990
- UZEI (1986) *Biologia/2 (Botanika)*
- UZEI (1987) *Biologia/3 (Ekologia)*
- UZEI (1988) *Biologia/4 (Zoologia)*
- ZABALA, I. (1996) 'La traducción al vasco de los sintagmas nominales complejos del lenguaje técnico' *III Congreso Internacional sobre Traducción*. Biltzarreko aktetan agertzeko.
- ZABALA, I. eta ODRIOSOLA, J. C. (1994) 'Ajektiboen eta adberbioen arteko muga zehatzik eza' *ASJU*. 1994 (2): 525-541

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

Argumentu-harremana / eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila

Ezaguna da izenondo erreferentzialek sekulako arazoak sortzen dizkietela edozein testu euskaratu behar duten itzultzaileei. Askotan jarri da agerian hainbat bide erabili behar direla inguruko hizkuntzen izenondo erreferentzialen euskal ordainak lortzeko (Eunsunza, 1989; Loinaz, 1995) baina edonola, idazle/itzultzailearen zuhurtasunaren, intuizio onaren edota estetika-zentzuaren azpian uzten da neurri handian kasu bakoitzean erabili behar den baliabidearen aukeraketa.

Izenondo erreferentzialak izenetatik eratorritakoak izaten dira beti baina askotan, jatorria eta izaera erreferentziala nahasi eta zaku berean sartzen dira erabat predikatiboak diren izenondoak, zalantzarik gabe erreferentzial hutsak diren izenondoekin. Ingeleserako Levi-k (1978) garbi utzi du izenetik eratorriak diren baina ezaugarri semantiko eta sintaktiko desberdinak dituzten bi izenondo-mota bereizteko beharra: 'nominal nonpredicating adjectives' eta 'denominal adjectives'; azkenekoak *-y*, *-fill* eta *-ous* bezalako atzizkien bidez eratorritakoak dira eta haien gramatika-kategoria ezezik, haien predikatu-izaera ere jasoko lukete atzizkitik. 'Nominal nonpredicating adjectives' sailean sartuko lirakeenak berriz, kategoriaz izenondoak izanik ere, izenen antzeko jokaera sintaktikoa izango lukete: *linguistic difficulties / language difficulties*. Gaztelaniaren kasuan Bosque-k (1989) defenditu duen bezala, badira izenondo erreferentzialak nekez ematen dituzten atzizki izenondo-sortzaileak (*-esco*, *-oso*, *-ino*) eta izenondo erreferentzialak eman ohi dituztenak (*-al*, *-ar*, *-ario*, *-ico*). Frantsesez ere atzizki desberdinak erabili ohi dira izenondo erreferentzialak eta predikatiboak sortzeko eta ondorioz, *familial-familier* eta *infantil-infantin* bezalako bikoteak dituzte.

Edonola, benetan erreferentzialak diren izenondoen artean ere, modifikatzen duten izenarekin duten harremanagatik (Bosque, 1989; 1992; Bosque eta Picallo, 1994), bi mota bereiz daitezke: alde batetik modifikatzen duten izena ekintza- edo ondorio-izena denean, askotan gertatzen da izenondo erreferentziala izen horren argumentua izatea. Adibidez, *decisión presidencial* ezinbestean izango da presidenteak erabakitakoa eta *extracción dental* hortz edo hagin baten ateratzearen ekintza. Bistan da azken kasuan *dental* izenondoa *extraer* aditzaren osagarri zuzenaren parekoa dela eta euskaraz izen elkartu sintetikoak hautagai bikainak direla hauetarako (*hortz-ateratzea*). *Decisión presidencial* ostera, nekez egingo dugu *presidente-erabaki* eta *presidentearen erabaki* aukeratuko dugu ia zalantzarik gabe. Zein da desberdintasun honen arrazoia, izen elkartuaren mugatzailearen 'subjektutasuna' ala elementu horren 'mugatutasuna'?

Bestetik, izenondo erreferentzialek modifikatzen dutena (argumentu-egiturarik gabeko objektu-)izena denean, izenaren eta izenondoaren arteko harremana ezin auresan daiteke; hiztegi-gileek *-ri dagokion* perifrasiaren bidez definitzen duten esparru-harremana edo jabego-harremana dugu orduan. Adibidez, *hilo dental* hortzak garbitzeko erabiltzen den haria da eta euskaraz, *hortzetako haria* nahiago genuke seguruenik *hortz-haria* baino. Azkenik, fonetikaren esparruan erabiltzen den *consonante dental* multzorako *kontsonante horzkaria* erabiltzen da eta ez *hortz-kontsonante*.

Laburbilduz, unibertetsala da izenen eta haien modifikatzaileen artean egon daitezkeen harremanen sailkapena: predikatu-izaera duten modifikatzaileak alde batetik eta izaera erreferentziala duten modifikatzaileak bestetik. Gainera, azken multzo honen barruan izenaren argumentuak diren modifikatzaileak eta izenarekin jabego- edo eremu-harremana dutenak daude.

Harreman horiek gramatika-kategoria desberdinen bidez adieraz daitezke hizkuntza batean eta beste batean: izenondoen bidez, preposizio- edo posposizio-sintagmen bidez,

izen elkartuen bidez e.a. Esate baterako, ingeleseko *marginal* adjektiboak erabilera erreferentziala eta predikatiboa ditu hurrenez hurren *marginal note* eta *marginal case* multzoetan; gaztelaniaz berriz, erabilera erreferentziala eta predikatiboa bereizten dituzte, nota al margen eta *caso marginal* eginez. Euskararako, 'Elhuyar hiztegia' *albo-ohar* edo *marjinako ohar* aurki daiteke erabilera erreferentzialerako baina *bazterreko kasu* bezalako adibideak erabilera predikatiborako. Edonola, zenbait hizkuntzatan, deskribaturiko hiru esparruak estaltzen dituzten izenondoak daude; Levi-ren adibideak gogoraraziko ditugu horretarako: *musical voice*, *musical criticism*, *musical comedy*.

Lan honetan, harreman unibertsal horietako bakoitza euskaraz zein baliabideren bidez adieraz daitekeen eta baliabide bakoitzaren mugak (gaur egun behintzat) non egon daitezkeen finkatzen saiatuko gara: Euskal atzizki izenondo-sortzaileen bidez, zein motatako izenondoak sor daitezke? Zenbait izenondo erreferentzial izen elkartuen bidez euskara badaitezke ere, garbi dago bide honek ez dituela izenondo erreferentzial guztien ordainak eskaintzen. Non dago muga? Predikatu-/ez-predikatu izaeran, argumentu-/eremu-/jabego-harremanean edo beste nonbait al datza gakoa? Izenondoaren jatorrian dagoen izenaren mugatu/mugagabe, bizidun/bizigabe, zenbakarri/zenbakaitza bezalako tasunek ba al dute nolabaiteko eraginik? Modifikatua den izena ekintza-, ondorio- edo objektu-izena izateak ba al du eraginik ezintasun horretan? Zein dira erdal izenondo erreferentzial bat ezinbestean mailegatu behar izatera eraman gaitzaketen baldintzak? Noiz erabili ohi ditugu euskal izenlagunak erdal izenondoak ordezkatzeko?

Lanaren helburua laburki esanda, inguruko hizkuntzen izenondo erreferentzialak euskaratzeko beharrea gaudenean modu automatiko samarrea egiten lagunduko ligukeen sistematizazioa lortzea da.

Relación de argumento/relación de campo: en busca de los equivalentes en euskera de los adjetivos referenciales

Es sabida la magnitud de los problemas que acarrear los adjetivos referenciales a los traductores al euskera de cualquier tipo de texto. En múltiples ocasiones ha quedado en evidencia que para dar con los equivalentes en euskera de los adjetivos referenciales de las lenguas vecinas se han de seguir varios caminos diferentes (Ensunza, 1989; Loinaz, 1995), si bien, de alguna manera, la elección de los recursos que se han de emplear se deja en la mayoría de los casos en manos del buen juicio, intuición y el sentido estético del escritor/traductor.

Los adjetivos referenciales siempre derivan del nombre pero, muchas veces, se mezclan el origen y el carácter referencial y entran en el mismo saco los adjetivos que son completamente predicativos con los adjetivos que sin duda alguna son absolutamente referenciales. Para el caso del inglés, ya en 1978 Levi dejó clara la necesidad de diferenciar dos tipos de adjetivos de derivados de sustantivo pero de características semánticas y sintácticas diferentes: “nominal nonpredicating adjectives” y “denominal adjectives”; los últimos, derivados mediante sufijos tipo *-y*, *-ful* y *-ous*, de modo que no sólo tomarán de los sufijos su categoría gramatical, sino también el carácter predicativo. Por el contrario, los que se englobarían en la clasificación de “nominal nonpredicating adjectives”, a pesar de ser por categoría adjetivos, tendrían un comportamiento similar al de los sustantivos: *linguistic difficulties/language difficulties*. En el caso del castellano, tal y como defendió Bosque en 1989, existen sufijos generativos que difícilmente derivan en adjetivos referenciales (*-esco*, *-il*, *-oso*, *-ino*) y otros que frecuentemente derivan en adjetivos referenciales (*-al*, *-ar*, *-ario*, *-ico*). En francés también se suelen emplear diferentes sufijos para crear adjetivos referenciales y predicativos, y a consecuencia de ello cuentan con parejas del tipo *familial-familier* y *infantil-infantin*.

De cualquier modo, entre los adjetivos de carácter realmente referencial también, por la relación que tienen con el nombre que modifican (Bosque, 1989 y 1992; Bosque y

Picallo, 1994), se pueden diferenciar dos tipos: por una parte los que modifican nombres de actividades o consecuencias y frecuentemente el adjetivo referencial es el argumento del nombre. Por ejemplo, *decisión presidencial* necesariamente será lo decidido por el presidente y *extracción dental* la acción de sacar un diente o una muela. Es evidente que en el último caso el adjetivo *dental* equivale al complemento directo del verbo *extraer* y que en euskera los sustantivos compuestos son formidables candidatos para ello (*hortz-ateratzea*). Por el contrario, difícilmente traduciremos *decisión presidencial* como *presidente-erabaki* y, casi sin duda alguna, optaremos por *presidentearen erabaki*. ¿Cuál es la razón de esta diferencia, “el carácter de sujeto” del modificador de los nombres compuestos o el “carácter definido” de ese elemento?

Por otra parte, cuando lo que modifican los adjetivos referenciales es el nombre (de un objeto sin estructura argumental), no se puede predecir la relación entre el nombre y el adjetivo; en ese caso nos encontramos con la relación de ámbito o relación de propiedad que quienes se ocupan de elaborar los diccionarios definen con la perífrasis *-ri dagokion*. Por ejemplo, *hilo dental* es el hilo que se emplea para limpiar los dientes, en euskera, seguramente preferiríamos *hortzetako haria* a *hortz-haria*. Por último, para el conjunto denominado en el área de la fonética como *consonante dental* se emplea *kontsonante horzkaria* y no *hortz-kontsonante*.

En resumen, la clasificación de las relaciones que puede darse entre los nombres y sus modificadores es universal: por una parte los modificadores con carácter de predicado y por otra los que tienen carácter referencial. Además, dentro de este último grupo se encuentran los modificadores de los argumentos del nombre y los que tienen una relación de propiedad o de campo con él.

Dichas relaciones se pueden expresar a través de diferentes categorías gramaticales en una u otra lengua: a través de adjetivos, de sintagmas preposicionales o posposicionales, sustantivos compuestos, etc. Por ejemplo, el adjetivo *marginal* en inglés tiene un uso referencial y predicativo respectivamente en los conjuntos *marginal note* y *marginal case*; en castellano, por el contrario, diferencian el uso referencial y el predicativo empleando *nota al margen* y *caso marginal*. En el caso del euskera se pueden encontrar en el diccionario Elhuyar *albo-ohar* o *marjinako ohar* para su uso referencial, pero ejemplos del tipo *bazterreko kasu* para uso predicativo. De cualquier modo, en numerosas lenguas, existen adjetivos que cubren los tres espacios descritos. Para ilustrarlo recordaremos el ejemplo de Levi: *musical voice*, *musical criticism*, *musical comedy*.

En este trabajo intentaremos fijar a través de qué recursos se pueden expresar en euskera cada una de esas relaciones universales y dónde pueden encontrarse los límites de cada recurso (actualmente por lo menos). ¿Qué tipo de adjetivos se pueden crear a través de los sufijos generadores de adjetivos? Aunque muchos adjetivos referenciales se pueden dar en euskera a través de palabras compuestas, está claro que ese método no ofrece formas para todos los adjetivos referenciales. ¿Dónde se encuentra el límite? ¿Dónde se encuentra la clave, en el carácter de predicado/no predicado, en relación argumental, de campo, posesiva o en otro aspecto? ¿Tienen algún tipo de influencia las características definido/indefinido, animado/inanimado, contable/incontable? ¿Influye en esa imposibilidad que el nombre modificado se trate de un nombre de acción, consecuencia u objeto? ¿Cuáles son las condiciones que nos pueden llevar a no tener otro remedio que emplear el préstamo para traducir al euskera un adjetivo referencial de otras lenguas? ¿Cuándo hemos empleado complementos del nombre en euskera para sustituir a los adjetivos de otras lenguas?

En resumen, el objetivo del presente trabajo consiste en conseguir una sistematización que nos ayudaría a encontrar de un modo bastante automático el equivalente en euskera de adjetivos referenciales de las lenguas vecinas.

Relation d'argument/relation de champ: à la recherche des équivalents des adjectifs référentiels en euskera

L'importance des problèmes qu'entraînent les adjectifs référentiels pour les traducteurs à l'euskera de tout type de texte est parfaitement connue. Dans de nombreuses occasions, il a été évident que pour trouver les équivalents en euskera des adjectifs référentiels des langues voisines il a fallu suivre divers chemins (Ensunza, 1989; Loinaz, 1995), même si, d'une certaine façon, le choix des ressources qui doivent être employées est laissé dans la plupart des cas entre les mains du bon jugement, de l'intuition et du sens esthétique de l'écrivain/traducteur.

Les adjectifs référentiels proviennent toujours du nom mais, très souvent, l'origine et le caractère référentiel se mélangent et les adjectifs qui sont complètement prédicatifs ainsi que les adjectifs qui sans aucun doute sont absolument référentiels entrent dans le même groupe. Pour le cas de l'anglais, en 1978 Levi avait déjà laissé bien clair le besoin de différencier deux types d'adjectifs de dérivés de substantif mais de caractéristiques sémantiques et syntaxiques différentes: "nominal nonpredicating adjectives" et "denominal adjectives"; ces derniers dérivés moyennant des suffixes du type *-y*, *-ful* et *-ous*, de telle façon qu'à partir des suffixes ils prendront non seulement leur catégorie grammaticale, mais également leur caractère prédicatif. Au contraire, ceux qui seraient réunis dans la classification de "nominal nonpredicating adjectives", bien qu'ils soient par catégorie des adjectifs, auraient un comportement similaire à celui des substantifs: *linguistic difficulties / language difficulties*. Dans le cas de l'espagnol, comme Bosque l'a défendu en 1989, il existe des suffixes génératifs qui peuvent difficilement dériver dans des adjectifs référentiels (*-esco*, *-il*, *-oso*, *-ino*) et d'autres qui dérivent fréquemment dans des adjectifs référentiels (*-al*, *-ar*, *-ario*, *-ico*). En français, généralement, on emploie aussi différents suffixes pour créer des adjectifs référentiels et prédicatifs, et par conséquent il y a des couples du genre *familial-familier* et *infantil-infantin*.

De toute façon, parmi les adjectifs de caractère réellement référentiel, à cause de la relation qu'ils ont avec le nom qu'ils modifient (Bosque, 1989 et 1992; Bosque et Picallo, 1994), on peut également en différencier deux types: d'une part ceux qui modifient des noms d'activités ou de conséquences et fréquemment l'adjectif référentiel est l'argument du nom. Par exemple, *decisión presidencial* sera nécessairement ce qui a été décidé par le président et *extracción dental* sera l'action d'extraire une dent ou une molaire. Il est évident que dans ce dernier cas l'adjectif *dental* équivaut au complément direct du verbe *extraer* et qu'en euskera les substantifs composés sont des candidats formidables pour cela (*hortz-ateratzea*). Au contraire, nous traduirons difficilement *decisión presidencial* comme *presidente-erabaki*, et presque sans aucun doute, nous choisirons *presidentearen erabaki*. Quelle est la raison de cette différence, le "caractère de sujet" du modificateur des noms composés ou le "caractère défini" de cet élément?

D'autre part, lorsque les adjectifs référentiels modifient le nom (d'un objet sans structure argumentaire), on ne peut pas prédire la relation entre le nom et l'adjectif; dans ce cas nous nous trouvons avec la relation de milieu ou relation de propriété que ceux qui s'occupent d'élaborer des dictionnaires définissent avec la périphrase *-ri dagokion*. Par exemple, *hilo dental* est le fil qui s'utilise pour nettoyer les dents, en euskera, nous préférons sûrement *hortzetako haria* à *hortz-haria*. Finalement, pour l'ensemble dénommé dans le domaine de la phonétique *consonante dental*, on emploie *kontsonante horzkaria* et non *hortz-kontsonante*.

En résumé, la classification des relations qui peut avoir lieu entre les noms et leurs modificateurs est universelle: d'une part les modificateurs avec un caractère de prédicat, et d'autre part ceux qui ont un caractère référentiel. De plus, dans ce dernier groupe se trouvent les modificateurs des arguments du nom et ceux qui ont avec lui une relation de propriété ou de champ.

Ces relations peuvent être exprimées à travers différentes catégories grammaticales dans une langue ou dans une autre: à travers des adjectifs, des syntagmes prépositionnels ou postpositionnels, des substantifs composés, etc. Par exemple l'adjectif *marginal* en anglais a un usage référentiel et prédicatif respectivement avec les ensembles *marginal note* et *marginal case*; en espagnol, au contraire, on différencie l'usage référentiel et le prédicatif en employant *nota al margen* et *caso marginal*. Dans le cas de l'euskera on peut trouver dans le dictionnaire Elhuyar *albo-ohar* ou *marjinako ohar* pour son usage référentiel, mais des exemples du type *bazterreko kasu* pour son usage prédicatif. De toute façon, dans de nombreuses langues, il existe des adjectifs qui couvrent les trois espaces décrits, pour illustrer ceci nous rappellerons l'exemple de Levi: *musical voice*, *musical criticism*, *musical comedy*.

Dans ce travail nous essayerons de fixer à travers quelles ressources peuvent être exprimées en euskera chacune de ces relations universelles, et où peuvent se trouver les limites de chaque ressource (du moins actuellement). Quel type d'adjectifs peuvent être créés à travers des suffixes génératifs d'adjectifs? Bien que de nombreux adjectifs référentiels peuvent exister en euskera à travers des mots composés, il est clair que cette méthode n'offre pas de formes pour tous les adjectifs référentiels. Où se trouve la limite? Où se trouve la clef, dans le caractère de prédicat/non prédicat, dans la relation argumentaire, de champ, possessive ou dans un autre aspect? Les caractéristiques défini/indéfini, animé/inanimé, comptable/no-comptable ont-elles un certain type d'influence? Le fait que le nom modifié soit un nom d'action, de conséquence ou d'objet a une influence dans cette impossibilité? Quelles sont les conditions qui peuvent nous pousser à n'avoir comme solution que celle d'employer l'emprunt pour traduire à l'euskera un adjectif référentiel appartenant à d'autres langues? Quand avons nous employé des compléments du nom en euskera pour remplacer les adjectifs appartenant à d'autres langues?

En résumé, le but du travail présent est d'obtenir une systématisation qui nous aiderait à trouver d'une manière assez automatique l'équivalent en euskera des adjectifs référentiels des langues voisines.

Argument relationships / field relationships: the search for Basque equivalents to referential adjectives

The problems posed for Basque translators by referential adjectives in texts of all types are well known. It has often been shown that to find the equivalents in Basque of referential adjectives in neighbouring languages various different paths must be followed (Ensunza, 1989; Loinaz, 1995), though to a certain extent the choice of the resources to be used is usually left to the good judgement, intuition and aesthetic sense of the writer/translator.

Referential adjectives always derive from a noun, but often origins and referential nature are mixed and adjectives which are completely predicative are thrown into the same bag as adjectives which are without doubt completely referential. In English Levi clearly expressed in 1978 the need to distinguish between two types of adjectives deriving from nouns, whose semantic and syntactic characteristics were different: "nominal nonpredicating adjectives" and "denominal adjectives". The latter are derived by means of suffixes such as *-y*, *-ful* and *-ous*, so that they take not only their grammatical category but also their predicative nature from their suffixes. On the other hand "nominal nonpredicating adjectives" are by category adjectives but behave similarly to nouns: *linguistic difficulties / language difficulties*. In the case of Spanish, as defended by Bosque in 1989, there are some generative suffixes which are unlikely to derive to referential adjectives (*-esco*, *-il*, *-oso*, *-ino*) and others which frequently derive to such adjectives (*-al*, *-ar*, *-ario*, *-ico*). In French, too, different suffixes are generally used to create referential and predicative adjectives, giving rise to pairs such as *familial-familier* and *infantil-infantin*.

In any event, two types can be distinguished in adjectives which are truly referential due to their relationship with the noun which they modify (Bosque, 1989; 1992; Bosque & Picallo, 1994): on the one hand are those which modify nouns denoting activities or consequences, where the referential adjective is frequently the argument of the noun. Examples would be *decisión presidencial* ("presidential decision"), which must mean what is decided by the President, and *extracción dental* ("tooth extraction"), denoting the action of removing a tooth or molar. It is obvious that in the latter case the adjective *dental* is equivalent to the direct object of the verb *extraer* ("to extract"). In Basque compound nouns are prime candidates for this (*hertz-ateratzea*). However, we are unlikely to translate *decisión presidencial* as *presidente-erabaki*: we would almost certainly opt for *presidentearen erabaki*. Why is there this difference between the "subject nature" of the modifier of compound nouns and the "defined nature" of this element?

On the other hand, when referential adjectives modify the noun (an object with no argumental structure) the relationship between the noun and the adjective cannot be predicted: in this case we find a relationship of field or of ownership, which is shown by dictionary compilers by the periphrasis *-ri dagokion*. For instance *hilo dental* ("dental floss") is the floss used to clean teeth, and in Basque *hartzetako haria* would probably be preferred to *hotz-haria*. Finally, the group known in phonetics as a *consonante dental* would be *kontsonante horzkaria* and not *hertz-kontsonante*.

In short, the classification of the relationships which may exist between nouns and their modifiers is universal: on the one hand there are modifiers with a predicative nature and on the other those with a referential nature. Within this last group are modifiers of noun arguments and modifiers with an ownership or field relationship with nouns.

These relationships can be expressed through different grammatical categories in one language or another: through adjectives, prepositional or postpositional phrases, compound nouns, etc. For instance the adjective *marginal* in English is used in a referential fashion in *marginal note* and in a predicative one in *marginal case*. In Spanish, however, the difference between these referential and predicative uses is made by using *nota al margen* and *caso marginal*. In Basque, the Elhuyar dictionary gives *albo-ohar* or *marjinako ohar* for the referential use, but examples of the *bazterreko kasu* type for the predicative use. In any event many languages have adjectives which cover all three areas described. This can be illustrated with an example from Levi: *musical voice*, *musical criticism*, *musical comedy*.

In this study we shall attempt to determine the resources through which each of these universal relationships can be expressed in Basque and where the limits of each resource lie (at least at the present). What types of adjective can be created through adjective generating suffixes? Although many referential adjectives can be expressed in Basque through compound words, this method clearly does not offer forms for all such adjectives. Where then is the limit? Where is the key? Is it in predicative/non predicative nature, in argumental, field or possessive relationships or is it elsewhere? Does definite/indefinite, animate/inanimate, countable/uncountable nature have any influence? Is impossibility influenced by whether the noun modified is an action, a consequence or an object? Under what conditions could we be forced to use loans to translate referential adjectives from other languages into Basque? When do we use noun complements in Basque to replace adjectives in other languages?

In summary, the aim of this study is to achieve a systematisation which can help us find the equivalent in Basque to referential adjectives in neighbouring languages in a fairly automatic way.